

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

423/20 prozedura laburtuan epea jartzea

A1 eta A2 taldeetako enplegu-eskaintza publikoa zabaltzeko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko urriaren 25ean hartutako erabakiaren aurrean aurkeztutako berraztertze errekurtsoa ezetsi zeneko Giza Baliabideen zinegotzi ordezkariaren 2020ko urtarrilaren 27ko ebazpenaren kontra 16289282 nortasun-agiriaren titularrak aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa —423/20 prozedura laburtua— izapidetzen ari delarik Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 1. Epaitegia, bederatzi eguneko epea jarri da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik, bere interesetarako komenigarritzat jotzen badu bertara ager dadin, lege beraren 23. artikuluari jarraiki.

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, hauxe eman eta sinatzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 29an

Udal legelaria

RICARDO SOLAUN GONZÁLEZ